

EGITASMOA AHALBIDETZEKO ERABAKIAK LEGEGINTZALDI HONETAN HARTUKO DITU JAURLARITZAK

Enpresa pribatuek 400.000 milioi inbertituko dituzte energia alorrean

3E-2005 egitasmoak energiaren alorrean izan diren aldaketetara egokitzea du helburu. Eskaria % 15 gehituko da hamar urtetan, eta kontsumoa % 3 jaitsiko da. Helburuetako bat ingurugiro kutsadura erdira jaitea dela esan zuen Javier Retegi Industria sailburuak.

Felix Iriarte / Gasteiz


JAURLARITZAKO Gobernu Kontseiluak argi berdea eman zion atzo, iragarrita zegoen bezala, 1995-2005 urterako Plan Estrategikoari. Plan horrek EAEk izango dituen energia beharrak aurrirakusten ditu, eta egoerari egokitzeko plan bat marraztu du. Hala ere, egitasmoaren eraginkortasuna enpresa pribatuen esku geratuko da, beraiek izango dute eta inbertsioak aurrera eramateko azken hitza.

Gobernuak, haatik, espero du enpresa horiek 400.000 milioi pezeta inbertitzea, proiektu osoaren % 90a. Jaurlaritzak beste 42.000 milioi jarriko ditu, Gas Euskadi eta EVE baltzuaeren birtartez. Inbertsio publikoak aurrirakuspenak egiteko bideratuko dira batez ere. Inbertsioen giltza esku pribatuetan dagoenez, Retegik ez zuen ezer aurreratu nahi izan inbertsioen kokapenari buruz. 'Enpresek erabakiko dute non inbertitu, hori ez dago gure esku', adierazi zuen.

Alor elektrikorako inbertsioen % 37 bideratuko dira, gasak % 19 eramango du, energia berritzaileak % 15 eta hidrokarburuek % 7. Gainera energia eraginkorretan guztikoaren % 16 inbertituko da, eta finketan % 6.

2.001. urtean berrikusi egingo da egitasmoa, eta beste bost urterako helburuak zehaztuko dituzte. Orain hemendik zortzi urteko epean bete nahi dituztenak argitu ditu Industria sailburuak, eta adierazi du helburu horiek lortzeko 'erabaki garrantzitsuenak' legegintzaldi honetan hartuko dituela Jaurlaritzak.

Energia eskaera % 15 gehituko



Orotara energia alorrean 442.000 milioi pezeta inbertitzea aurrirakusten du 3E-2005 planak.

ARTXIBOKOA

da 2005. urtea bitartean. Hala ere, kontsumoak behera egingo du, % 3 hain zuzen ere. Bi arrazoi eman zituen sailburuak: AHV enpresa desagertu izana eta energia aurrezte. Beste indize bat azpimarratu zuen: eraginkortasun energetikoa. Indize horrek erakusten du Administrazio publikoak egiten duen ahalegina behar energetikoa murrizteko, eta EAEn kasuan % 25 murriztea espero du Retegik.

Kontsumo elektrikoak gora egingo du, batez ere produktu

energetiko kogeneratuengatik. Etxebizitzetako eta industriako kontsumoak gora egingo du, baina apalago. Retegik esan zuen industria kontsumoak ia goia jo duela, baina, haatik, beste eskaera batzuk daudela nabarmendu zuen. Industriak, hala ere, kontsumo elektriko guztia % 66 jango du, Espainian % 40 bakarrik bada ere.

Gas naturalaren kontsumoa ia bikoiztu egingo da hamar urteko epean. 1995. urtean 9.640 megaterminus kontsumitu zituen

EAEk, eta 2.005 urtean 18.760 izango dira. Retegiri 'posibilista eta ilusionagarria' iruditzen zaion egitasmoak, gainera, ingurugiro kutsadura asko murriztea ekarriko du. Planaren arabera, hamar urtetan erdira jaitsiko da kutsadura hori. Hori ahalbidetuko du, besteak beste energia iturriak gehitu eta dibertsifikatu izanak. Energia berritzaileak, esaterako, % 0,8 izatetik % 12 izatera igaroko dira. SO₂ kopurua murriztuko da gehien, % 57 hain zuzen ere, eta CO₂ % 11. X

Kamioien debekua errekurritu egingo du Madrilek

■ Kontentzioso-administratiboaren bidea aukeratu du Partidu Popularraren gobernuak

Erredakzioa / Donostia

AZKENIK errekurtsioa jartzea erabaki du Espainiako Gobernuak, eta igande eta jaiegunetan kamioiak EAEko errepideetan ibiltzeko debekua auzibideetan sartuko da. Madrilek Epaitegi Konstituzionalera jotzeko aukera baztertu, eta azkenik kontentzioso-administratiboaren bidea hautatu du Eusko Jaurlaritzaren debekua errekurritzeko.

Iragan astean Rafael Arias Salgado Espainiako Sustapen ministroak adierazi zuenez, Eusko Jaurlaritzak garraio kontuetan konpetentziak dituen arren, kamioiak ibiltzea debekatu duenean bere eskubideetatik landa

aritu da. Adierazpen horien ondorioz, ziurtzat eman zuten Madrilek Eusko Jaurlaritzaren arauaren aurka egingo zuela. Arias Salgadoren ustez, «debekua ez ditu berdintasun eta lehia librearen oinarriak behar adina errespetatzen».

Jorge Fernandez Lurralde Administrazioetarako Estatu idazkariak esan duenez, «Espainiako Gobernuak lurralde osoko errepideetan libre ibiltzeko eskubidea bermatu behar du». «Herritar guztiak berdinak dira legearen aurrean eta lurralde osoko errepideetan libre ibiltzeko eskubidea ere badago. Eskubide horiek babestu egin behar ditu Gobernuak», argitu du Fernandezek.

Gogoratu behar da apirilaren hasieraz geroztik EAE abiapuntu edo helmuga ez duten 7.500 kilo baino pisu handiagoa duten kamioiek ezin dutela igande eta jaiegunetan Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko errepideetan ibili. Eusko Jaurlaritzak agindutako debekuaen xedea, Irunen (Gipuzkoa) asteburuetan sortzen diren kamioi ilarak eragozteko da. Izan ere, Frantzia eta Iparraldean debekatuta dago aspalditik igande eta jaiegunetan errepideetan kamioi handiak ibiltzea. Horren ondorioz, Espainiako kamioiak Irunen pilotzen dira errepide alboetan, eta horrek istripuak eragiten ditu, Jaurlaritzako arduradunek esan dutenez.

Nolanahi ere, debekua indarrean jarri eta berehala inguruko autonomi elkarteetako garraio-lariak eta agintariak haserre agertu ziren, Jaurlaritzaren neurria beraien kalterako dela argudiatuz. Jaurlaritzak da garraio kontutan transferentziak dituen gobernu autonomo bakarra, eta gainontzekoek ezin izan dute ezer egin Jaurlaritzaren debekuaen aurka. Madrili errekurtsioa jartzea exijitu izan diote, eta azkenik Madrilek horixe egin du. EAEko garraio-lariak oso begi onez ikusi dute Jaurlaritzaren debekua, eta benetan eraginkorra izan dadin Espainian eta Nafarroan ere aplikatu beharko litzatekeela esan dute. X

laburrean

■ Irungo langabetuei hainbat zerbitzu doan eskaintzeko eskatu du LABek

IRUNGO (Gipuzkoa) Udaleri eskaera zehatza egin diote bertako LABeko afiliatuek, eta hainbat udal zerbitzu lanik ez duten herritarrei doan eskaintzeko proposatu diote. Langabetuen bizi-baldintzak hobetzea da proposamenaren helburua. Hala, herriko langabetuentzat kiroldegiko eta Amaia kultur etxeak antolatzen dituen kultur ekitaldietako sarrerak libre izateko eskatu dute. Horrez gainera, garraio kolektiboa erabili ahal izateko eta gazte langabetuei etxebizitzaren alokairua ordaintzeko laguntzak eskatu dituzte. X

■ Edadetuentzat txartel bateratua aterako dute Renfek eta Iruñeko Aurrezki Kutxak

IRUNEKO Aurrezki Kutxak eta Renfek adinduentzat txartel bateratua aterako dute. Tarjeta lider Dorada Renfe izena emango diote txartel berriari, eta 60 urte baino gehiago dutenek erabili ahal izango dute. Bi urteko iraupena izango du txartelak, eta ibilbide luzeko tren bidaietan % 50eko beherapena izango dute txartelaren bidez ordainduz gero. Ibilbide laburreko bidaietan, aldiz, % 40ko beherapena eskainiko diete Renfek eta Iruñeko Aurrezki Kutxak txartela dutenei. X

■ Frantziako kontsumo gaien prezioak bere horretan gelditu ziren apirilean

FRANTZIAN kontsumo gaien prezioek ez zuten ez behera ez gora egin. INSEE Frantziako estatistika institutu ofizialak eman datuen arabera, apirilko inflazioa zero eta % 0,1 bitartekoa izan zen. Horrenbestez, urte arteko inflazioa % 0,9 eta % 1 bitartera heldu da. Urtarriletik apirilera arte KPI % 0,5 eta % 0,6 bitartekoa izan da, betiere INSEE estatistika institutu ofizialaren datuen arabera. X

■ EAEko administrazioek ez dute defizit publikorik izango 1998an

EAE-KO Gobernuak eta hiru diputazioek ez dute defizit publikorik izango 1998. urtean, Juan Jose Ibarretxe lehendakariordeak atzo iragarri zuenez. Iragarpen hori Jaurlaritzak eta bederatzi finantza entitatek atzo sinatutako zor publikoaren jaulkipen ekitaldian egin zuen Ibarretxek. Jaulkipena 20.000 milioi pezetakoa da, % 5,40ko interesarekin eta bost urteko amortizazioarekin. X